Intervienen AITOR JOSEBA ANSOLEAGA EGUILUZ, que ha presentado el escrito nº 37.773/2.019, y JUAN ANTONIO ANDRES RODRIGO, que ha presentado el escrito nº 37.775/2.019.

El primero, como titular del inmueble nº 7 de la calle Sarrikobaso, se refiere al lamentable estado que presenta el inmueble y se opone a la estimación de la alegación de los Hnos. Magra de Orue y otros por entender que causará retrasos a un expediente ya de por sí dilatado en el tiempo.

El segundo, como representante de quienes han promovido el expediente para la Modificación Puntual del Plan General, resaltando las complicaciones que se derivarían de la estimación de las alegaciones, con

espedientearen amaiera atzeratu egingo litzatekeelako.

Udal taldeen azalpenak:

Eduardo Andradek behinola EAJ-PNV eta PSE-EE taldeekin sinatutako akordioa aipatu du, esanez talde horiek hasierako onespen erabakia babestera bultzatu zutela PP, eta deitoratu egin du alegazioa baiestek ekarriko duen atzerapena. Ez du uste alegazioa onartzea interes publikoaren onerako izango denik.

Ibon Rodríguezek adierazi du proposamena gaztelania hutsean jaso dela, eta bere egin ditu Aitor Ansoleagak eta Juan Antonio Andrések argudiatutako arrazoiak. Egoera txarrean dauden eraikinek segurtasuna eta osasungarritasuna arriskuan jartzen dituztela uste du, eta alegazioak baiestek atzerapen handia ekarriko duela.

Ignacio Roblesek kalkulatu egin nahi du zenbateko atzerapena izango litzatekeen, eta galdetu du ea nola lortuko litzatekeen espazio libreen toki sistema gisa kalifikatutako eremua 56. banaketa-areatik ("Katea") kanpo.

Lehenengo galderari erantzunez, proposatutako antolamendu fisiko mantenduz gero bere horretan iraungo luketen izapideak aipatu dizkiote (Urduñako Mendatea 6-8ko lurzattia gehituta ere aldatuko ez liratekeenak); eta bigarren galderari erantzunez, banaketa-areako eredu-aprobetxamenduaren teknika aipatu diote, alderantzizkoak eta denboran programatu ezinezkoak diren

compromisos asumidos, al retrasarse la culminación del expediente.

Intervenciones de los Grupos Municipales:

Eduardo Andrade se refiere al acuerdo suscrito en su día con los grupos EAJ-PNV y PSE-EE, que llevaron al PP a apoyar el acuerdo de aprobación inicial, y se lamenta del retraso que supone la estimación de la alegación, sin que aprecie que la aceptación de la alegación conlleve beneficios al interés público.

Ibon Rodríguez apunta que la propuesta se ha recibido solo en castellano, y acoge las razones hechas valer por Aitor Ansoleaga y Juna Antonio Andrés, entendiendo que hay edificios en mal estado que comprometen la seguridad y la salubridad y que la estimación de las alegaciones entrañará un importante retraso.

Ignacio Robles quiere calcular el retraso que se produciría y pregunta por la manera en que se obtendría el espacio calificado como sistema local de espacios libres fuera del ámbito del Área de Reparto nº 56-"Katea".

A la primera pregunta se le responde aludiendo a los trámites que se conservarían, de mantenerse la ordenación física propuesta, por resultar invariables con la incorporación de la parcela del Puerto Orduña 6-8 y, a la segunda, remitiéndole a la técnica del aprovechamiento tipo del Área de Reparto, a partir de la identificación de situaciones inversas, no

egoeren identifikaziotik abiatuta, eremua egikaritze-unitate batean sartzearekin kontrajarrita, zeinak bere urbanizazio-jarduketaren programa edukiko baitu eta espazioa doan laga beharko baitu, exekuzio eta guzti.

II.- KONTSIDERAZIOAK.-

ATARIKOA: PLANGINTZA-AHALA, IUS VARIANDI.

Ius variandi delakoa honela defini daiteke: une jakin batean indarrean dagoen hirigintzako antolamendua aldatzeko ahalmena, plangintzarako eskumena duen administrazioak bere kabuz erabakitakoa.

Plangintza-ahaletik bereizi ezinezkoa da, halako moduan non ius variandi delakoa ahal horren berezko adierazpena baita.

Planen indarraldi mugagabeari egindako zuzenketa edo ñabardura da. Planek izaera mugagabea eta iraupenerako bokazioa izateak ez du esan nahi antolamendua betiko mantendu behar denik ukitu eta aldatu gabe, antolamendu zaharkituak, okerrak edo are interes publikoari zein pribatuari kalte egiten diotenak iraunaraziz.

Hala, planeamenduaren aldaketek eta berrikuspenek ius variandi edo aldatzeko ahalmenaren zilegitasuna dute abiapuntu. Administrazioari ahalmen hori eman zaio lurzorua araudia eskakizun eta errealitate berrietara egokitzeko bitarteko gisa. Potestas variandi hori baliaturik, Administrazioak erabakimen zabala du, alegia, ahal horren jabe da eta

programables en el tiempo, frente a la incorporación de la superficie al ámbito de una unidad de ejecución, que va a contar con su correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora y va a suponer la cesión del espacio de manera gratuita con su ejecución.

II.- CONSIDERACIONES.-

PRELIMINAR: POTESTAD DE PLANEAMIENTO, IUS VARIANDI.

El ius variandi puede definirse como el poder de alterar la ordenación urbanística vigente en un momento dado por decisión discrecional de la Administración competente para planificar.

Es consustancial a la potestad de planeamiento, de manera que el ius variandi es la manifestación típica de dicha potestad.

Es una corrección o matización de la vigencia indefinida de los planes. El carácter indefinido de los planes y su vocación general de permanencia no implican posiciones inmovilistas que mantengan la inmutabilidad infinita de la ordenación, perpetuando ordenaciones obsoletas, erróneas o incluso perjudiciales al interés público y privado.

Así, las modificaciones y revisiones del planeamiento parten de la legitimidad del ius variandi o poder de cambio, otorgado a la Administración como medio de la adecuación normativa del suelo a las nuevas exigencias y realidades.

En el ejercicio de la potestas variandi dispone la Administración de amplia discrecionalidad en la que resulten

balizko konponbide bidezkoen artean hauta dezake; baina interes orokorrak asetzea xede duten arrazoi objektiboetan bilatu behar da horren funtsa, aldaketa eskatzen eta beharrezko bihurtzen duten kasu objektiboetan, betiere. Kasu horiek azaldu eta arrazoitu egin behar dira, beharizanen eta konponbideen arteko lotura erakutsiz, baina horrek ez du eragozten jokoan diren interes publikoak eta partikularren interesak bat etortzea.

Azalpen eta arrazoitze horretarako tresna planeko memoria da, azterlan ekonomiko eta finantzarioarekin batera.

Hirigintza-antolamenduaren aldaketa prozedura egokiaren bidez egin behar da. Prozedura horretan, hasierako eta behin-behineko onespentak izapide-egintzak dira, eta jendaurreko informazioaren faseak garrantzi berezia hartzen du: kontrolerako tresna da, eta hirigintza-antolamendurako tresna guztiak beraren pean jarri behar dira.

Eta prozedura horren barruan jartzen da agerian erregelamendu-ahalaren titularrak bere kabuz erabakitzeko tarte esanguratsua duela, zeren prozeduran zehar gerta bailiteke beraren legezotasuna edo egokitasuna birplanteatzeko arrazoi sendoak azaltzea. Eta bere kabuz erabakitzeko aukera horren egikaritzan posible izan daitezke hainbat konponbide, denak ere zilegizkoak eta zuzenak —eta, beraz, denak parekoak zuzenbidearentzat—. Horien artean hautatu beharko da irizpide ez-juridikoak erabiliz.

posibles distintas soluciones justas sobre las que ha de optar el titular de la potestad, si bien su fundamento hay que buscarlo en razones objetivas dirigidas a la satisfacción de intereses generales, en los supuestos objetivos que demandan y hacen necesaria la alteración y que han de explicarse y razonarse mostrando la congruencia entre las necesidades y las soluciones, lo que no impide la coincidencia entre los intereses públicos implícitos en el mismo y el interés de los particulares.

El instrumento para tal explicación y razonamiento es la Memoria del Plan, junto con el Estudio Económico Financiero.

La alteración de la ordenación urbanística se produce a través del correspondiente procedimiento, en el que la aprobación inicial y provisional constituyen actos de trámite y la fase de información pública adquiere especial relevancia, como instrumento de control al que necesariamente ha de ser sometido todo instrumento de ordenación urbanística.

Y es dentro de ese procedimiento donde se pone de manifiesto el significativo margen de discrecionalidad y de decisión con el que cuenta el titular de la potestad reglamentaria, ya que dentro del mismo pueden aparecer razones fundadas que hagan replantear su legalidad u oportunidad. Y en el ejercicio de la actividad discrecional pueden ser posibles varias soluciones todas igualmente lícitas y justas -y por tanto indiferentes para el Derecho- entre las cuales hay que elegir con criterios extrajurídicos.

LEHENENGOA: GETXOKO HIRI
ANTOLAMENDUKO PLAN
OROKORRAREN ALDAKETA
PUNTUALA 31.3-"SARRIKOBASO"
EGIKARITZE-UNITATEAN ETA
SARRIKOBASO KALEKO 17 ETA 19AN

PRIMERA: MODIFICACIÓN PUNTUAL
DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN
URBANA DE GETXO PARA LA UNIDAD
DE EJECUCIÓN 31.3-"SARRIKOBASO"
Y Nº 17 Y 19 DE LA CALLE
SARRIKOBASO

Getxoko Udalak, 2016ko ekainaren 29an egindako osoko bilkura arruntean, hasierako onespena eman du Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual bat egiteko, Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19 zenbakietarako, M. Jesus Hermoso Mendez andreak eta beste batzuek proposaturik (sarrera-erregistroko zenbakia: 9.438/2015).

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 29 de junio de 2016 aprueba, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo que, bajo el número de registro de entrada 9.438/2015, proponen doña M.a Jesus Hermoso Mendez y otros, para los nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso.

Aldaketa horren oinarri den hirigintzako dokumentazioan memoria bat dago eta bertan azaltzen dira aldaketaren arrazoi objektiboak.

La Memoria que forma parte de la documentación urbanística que soporta esta Modificación, se refiere a las razones objetivas que motivan la modificación.

Hala, memoria horrek dioenez, proposatu den aldaketa puntualaren helburua da "31.3 egikaritze-unitaterako hasiera batean aurreikusitako irabazizko erabilerak (txandakako aparkaleku pribatua goian) egokitzea, bizitegi-erabilerak ezartzeko aukera emanaz, araudi indardunean planteatzen diren erabileren ordeztu, azken horiek zaharkituak eta udalerraren egungo beharriaz arazotuta ezegokiak direlako". Gainera, "hirigintzaren aldetik ingurua berroneratu" egin nahi da.

Así, se explica que la Modificación Puntual que se propone pretende "la adaptación de los usos lucrativos inicialmente previstos para la Unidad de Ejecución 31.3" (aparcamiento rotatorio privado en altura), posibilitando la implantación de usos residenciales en sustitución de los usos planteados desde la normativa vigente, que se revelan obsoletos y poco adecuados a las necesidades actuales del municipio", además de "regenerar urbanísticamente el ámbito".

Horretarako bizitegi-erabilerak ezartzea aurreikusten da, hain zuzen ere etxebizitza bloke kolektiboak, eta beheko solairuetan merkataritza.

Para ello, contempla la implantación de usos residenciales de tipología de bloque colectivo con plantas bajas comerciales, mediante el diseño de

Horretarako, nahitaezko bi bloke diseinatuko dira: bata "A lurzatian", 1.737,03 m²-koa, etxebizitza kolektibo librerako eta lokal komertzialetarako erabiliko dena, etxebizitzarako 3.158,01 m²-ko eraikigarritasun geometrikoa izango duena, eta beheko solairuan merkataritzarako 303,34 m²-ko eraikigarritasun geometrikoa; eta bestea "B lurzatian", 683,27 m²-koa, araubide orokorreko udal etxebizitza kolektibo tasaturako eta araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitza kolektiborako, 2.105,34 m²-ko eraikigarritasun geometrikoarekin.

Memorian nabarmendu egiten da, interes publikoari zuzenean lotuta aurkezten den helburu nagusi gisa, hiri lurzoruko gunen txiki bat berroneratu eta berrituko dela udalerraren erdigunean.

Adierazitako helburuak lortzeko, memoriak dioenez, beharrezkoa da banaketa-arearen berri bat sortzea, garatu beharreko erabileretarako eredu-aprobetxamendu egokia izango duena, 31. zenbakikoaren ("Sarrikobaso") emaitzak desitxuratzea ekidindo duena.

Hala, 56. zenbakiko area ("Katea") egituratzen da. Bertan diseinatuko diren nahitaezko blokeek zehaztuko dute egiazko eraikigarritasuna, zeina, ezarritako haztapen-koefizienteak aplikatuta, eraikigarritasun haztatu bihurtzen baita, area berriko eredu-aprobetxamendua eratuz.

dos bloques impuestos: uno sobre la denominada "parcela A", de 1.737,03 m², destinado a vivienda colectiva libre y locales comerciales, con una edificabilidad geométrica de 3.158,01 m² para vivienda y 303,34 m² para comercio en planta baja, y otro sobre la "parcela B", de 683,27 m², destinado a vivienda colectiva tasada municipal de régimen general y vivienda colectiva de protección oficial de régimen general, con una edificabilidad geométrica de 2.105,34 m².

Destaca la Memoria, como objetivo clave que vinculan directamente al interés público, la regeneración y renovación urbana de un pequeño reducto de suelo urbano en el centro de municipio.

Para la consecución de los objetivos señalados, la Memoria apunta la necesidad de generar una nueva Área de Reparto, con un aprovechamiento tipo propio y congruente con los usos a desarrollar, que evite distorsionar los resultados de la nº 31- "Sarrikobaso".

Así, se configura el Área nº 56- "Katea", en la que la edificabilidad real viene determinada por los bloques impuestos que se diseñan y que se transforma en edificabilidad ponderada a partir de la aplicación de los coeficientes de ponderación que se establecen, dando lugar al aprovechamiento tipo de la nueva Área.

BIGARRENA: HASIERAN
ONETSITAKO DOKUMENTUARI
BURUZKO ALEGAZIOAK

SEGUNDA: LAS ALEGAZIONES
DEDUCIDAS FRENTE AL
DOCUMENTO APROBADO
INICIALMENTE

1.- Carlos Hernando Pérez jaunak eta Ricardo González Gómez jaunak aurkeztutako alegazioari dagokionez, hau esan behar da: izapidetzen ari den aldaketa puntualak funtsean alegazioa gauzatzea oztopatzen ez badu ere, ez da egokia erabaki hori espediente honetan hartzea, eta Gizarte Kohesioko Arloari igorri behar zaio alegazioa, jasota gera dadin.

1.- Respecto a la alegación presentada por D. Carlos Hernando Pérez y D. Ricardo González Gómez, cabe decir que, sin que la Modificación Puntual que se tramita impida, en principio, su realización, no es decisión que corresponda tomar en este expediente, debiendo ser remitida la alegación al Área de Cohesión Social para su debida constancia.

2.- Magra de Orue senideek eta beste batzuek aurkeztutako alegazioei dagokienez, bidezkoa da azterketa sakonagoa egitea hurrengo ataletan, arrazoi hauek kontuan harturik:

2.- Respecto a las presentadas por los Hermanos Magra de Orue y otros, procede realizar un examen más exhaustivo en los apartados siguientes, teniendo en cuenta:

.- Proposatutako hirigintza-antolamenduaren aurka baino gehiago, alegazio horiek antolamendu-eremuaren eta geroko kudeaketaren berrikuspenaren alde egin dira, eremu horretan sar dadin alegatzaileen jabetzako lurzatia. Lurzati hori espazio libreen toki sistema gisa kalifikatuta dago HAPO indardunean, 31. zenbakiko "Sarrikobaso" arearen barruan, eta handik hartuko dira aldaketa puntualak proposatzen duen 56. zenbakiko "Katea" arean sartuko diren lurrak.

.- Que se dirigen no tanto contra de la ordenación urbanística propuesta, como a favor de la reconsideración del ámbito de ordenación y gestión posterior, para que sea incluido en el mismo la parcela titularidad de los alegantes, calificada como sistema local de espacios libres en el PGOU vigente, dentro del Area nº 31-"Sarrikobaso" de la que proceden los terrenos que van a pasar a formar parte del Area nº 56-"Katea" que propone la Modificación Puntual.

.- Onurak eta zamak ekitatez banatzeko printzipioan oinarritu dituzte euren uziak.

.- Que apoyan sus pretensiones en el principio de equidistribución de beneficios y cargas.

.- Plangintza-ahala egikaritzen duen organoak, konponbide posibleetako

.- Que se analiza esta alegación para su posterior resolución por parte del órgano que ejerce la potestad de

bat hautatu behar duenak, alegazio hau aztertu behar du, gero ebazteko.

HIRUGARRENA: MAGRA ORUE
SENIDEEN ETA BESTE BATZUEN
ALEGAZIOAK, HAPO-AREN
ALDAKETA PUNTUALAREN
MEMORIAREN ESPARRUAN

Aurkeztutako alegazioa aldaketa puntualaren memorian azaltzen diren helburuekin lotuz, alegatzaileek "Katea" izeneko 56. banaketa-area berriaren konfigurazio zehatzari egiten diote aurka, uste dutelako euren lurzatia arearen barruan egon behar dela, "plangintzaren ondoriozko onurak eta zamak ekitatez banatuko direla bermatzeko, gure antolamendu juridikoaren funtsezko printzipio horri jarraituz".

Aldaketa puntualak banaketa-area berri baten mugak ezartzen ditu. Area hori 56 zenbakiarekin eta "Katea" izenarekin identifikatuko da, eta osagai hauek izango ditu: Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11 eta 17 zenbakietako lurzatiak, 31.3-"Sarrikobaso" egikaritze-unitatea osatzen dutenak, eta 19 zenbakian dagoen lurzatia, bera ere 31. zenbakiko "Sarrikobaso" banaketa-arearen barrukoa.

Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19 zenbakietako lurzatiak 31. zenbakiko "Sarrikobaso" areatik ateratzeak area horretako eredu-aprobetxamendua berriz kalkulatzera behartzen du.

Hala, memoriak adierazten du, 14. atalean, justifikatu egin behar dela ateratze horren ondorioz "ez duela eragin larririk jasango" 31. zenbakiko

planeamiento, que habrá de optar entre las distintas soluciones posibles.

TERCERA: LAS ALEGACIONES DE LOS HNOS. MAGRA ORUE Y OTROS EN EL MARCO DE LA MEMORIA DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOU

Puesta en relación la alegación formulada con los objetivos expuestos en la Memoria de la Modificación Puntual, los alegantes centran la discrepancia en la concreta configuración de la nueva Área de Reparto nº 56-"Katea", al entender que debe quedar incluida en la misma la parcela de la que son titulares, como manera de "garantizar el reparto equitativo de los beneficios y cargas derivados del planeamiento, como principio esencial de nuestro ordenamiento jurídico".

La Modificación Puntual establece la delimitación de una nueva Área de Reparto que será identificada con el nº 56 y la denominación de "Katea", a partir de las parcelas nº 7, 9, 11 y 17 de la calle Sarrikobaso que conforman la Unidad de Ejecución 31.3-"Sarrikobaso", así como la parcela sita en el nº 19, igualmente incluida en el Área de Reparto nº 31-"Sarrikobaso".

La extracción de las parcelas nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso del Área de Reparto nº 31-"Sarrikobaso" obliga a recalcular el aprovechamiento tipo para dicha Área.

Así, la Memoria en su apartado 14 señala que resulta necesario justificar que con dicha extracción el aprovechamiento tipo del Área de

“Sarrikobaso” banaketa-areako eredu-aprobetxamenduak. Horretarako, berriz kalkulatu du areako eredu-aprobetxamendua, behin kenduta Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19 zenbakietako lurzatiei dagokien azalera, eta ondorioztatzen du eredu-aprobetxamenduak 0,88 m²/m² izaten jarraituko duela.

Ondorio horretara heltzeko, zatiketa hau egin da: banaketa-area osorako aurreikusitako eraikigarritasun haztatua (erabilera eta eraikuntza-tipologia berezkoetarako 160.662 m²) zati aprobetxamendua sortzen duen guztizko azalera (182.827 m²).

Alegatzaileen uzia (euren lurzatia ere 31. areatik atera dadila, 56. area berrian sartzeko) goian azaldutako eskemari jarraituz aztertu da, ikusteko ea ateratze horrek eragin larri izango lukeen 31. zenbakiko “Sarrikobaso” banaketa-areako eredu-aprobetxamenduan. Ondorioztatu da eredu-aprobetxamenduak 0,88 m²/m² izaten jarraitzen duela, eta, beraz, 31. zenbakiko “Sarrikobaso” banaketa-arearen emaitzen distortsiorik ez eragiteko helburuari eusten zaiola.

Ondorio horretara heltzeko, zatiketa hau egin da: banaketa-area osorako aurreikusitako eraikigarritasun haztatua (erabilera eta eraikuntza-tipologia berezkoetarako 160.662 m²) zati aprobetxamendua sortzen duen guztizko azalera, oraingoan Urduñako Mendatea kaleko 6-8an dagoen lurzatiaren 1.081,03 m²-ak kenduta (181.745,97 m²).

Repato nº 31-“Sarrikobaso” “no se ve gravemente alterado”. Para ello recalcula el aprovechamiento tipo del Área, una vez detraída la superficie correspondiente a las parcelas nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso, llegando a la conclusión de que el aprovechamiento tipo sigue manteniéndose en el 0,88 m²/m².

Tal conclusión se alcanza a partir de dividir la edificabilidad ponderada prevista para el total del Área de Reparto (160.662 m² de uso y tipología edificatoria característicos) entre la superficie total generadora de aprovechamiento (182.827 m²).

Se analiza la pretensión de los alegantes (extraer igualmente del Área nº 31 su parcela para incorporarla a la nueva Área nº 56) siguiendo el esquema anterior, en orden a evaluar si con dicha extracción se ve gravemente alterado el aprovechamiento tipo del Área de Reparto nº 31-“Sarrikobaso”. Se llega a la conclusión de que el aprovechamiento tipo sigue manteniéndose en el 0,88 m²/m², por lo que se mantiene el objetivo de no distorsionar los resultados de la nº 31-“Sarrikobaso”.

Tal conclusión se alcanza a partir de dividir la edificabilidad ponderada prevista para el total del Área de Reparto (160.662 m² de uso y tipología edificatoria característicos) entre la superficie total generadora de aprovechamiento, reducida ahora en los 1.081,03 m² que mide la parcela sita en los nº 6-8 de la calle Puerto Orduña (181.745,97 m²).

Area berriko, hau da, 56. zenbakiko "Katea" banaketa-areako eredu-aprobetxamenduari dagokionez, aldaketa puntualak 1,92 m²/m²-ko aprobetxamendua finkatzen du, zatiketa hau eginda: banaketa-area osorako aurreikusitako eraikigarritasun haztatua (erabilera eta eraikuntza-tipologia berezkoetarako 4.579,42 m²) zati aprobetxamendua sortzen duen guztizko azalera (2.389,19 m²).

Urduñako Mendatea kaleko 6-8 zenbakietako lurzattia area horretan sartuz gero, berriz kalkulatu beharko litzateke eredu-aprobetxamendua, eta hain zuzen ere 1,32 m²/m² litzateke, hau da, banaketa-area osorako aurreikusitako eraikigarritasun haztatua (erabilera eta eraikuntza-tipologia berezkoetarako 4.579,42 m²) zati aprobetxamendua sortzen duen guztizko azalera (3.470,22 m²).

Azaldutako datuak ikusirik, ez dago alegazioa baiestea eragozten duen arrazoi teknikorik.

Hori guztia, plangintzaren ondoriozko onuren eta zamen banaketa bidezkoa ezbaian jartzea ahalbidetzen duen justifikaziorik gabe. Bidezko banaketa hori Konstituzioaren 14. artikuluan aitortutako berdintasunerako eskubidearen adierazpena da, hirigintza gidatu behar duen printzipio nagusia, eta aplikatu egin behar da bai plangintza-ahala egikaritzuz egiten diren planetan, baita geroko egikaritze-fasean ere.

LAUGARRENA: EGOKITASUN
KONTUAK

Por lo que se refiere al aprovechamiento tipo del Área de nueva creación, Área de Reparto nº 56-"Katea", la Modificación Puntual lo fija en 1,92 m²/m², a partir de dividir la edificabilidad ponderada prevista para el total del Área de Reparto (4.579,42 m² de uso y tipología edificatoria característicos) entre la superficie total generadora de aprovechamiento (2.389,19 m²).

La incorporación de la parcela sita en los nº 6-8 de la calle Puerto Orduña conllevaría el recálculo del aprovechamiento tipo, que quedaría fijado en 1,32 m²/m², a partir de dividir la edificabilidad ponderada prevista para el total del Área de Reparto (4.579,42 m² de uso y tipología edificatoria característicos) entre la superficie total generadora de aprovechamiento (3.470,22 m²).

A la vista de los datos expuestos, no hay razón técnica que oponer a la estimación de la alegación.

Todo ello sin mayores justificaciones que permitan cuestionar el justo reparto de los beneficios y cargas derivados del planeamiento, como manifestación del derecho de igualdad reconocido en el Art. 14 de la Constitución, configurado principio general rector del urbanismo, de aplicación tanto en la redacción de los planes en que se ejercita la potestad de planeamiento, como en la fase posterior de ejecución.

CUARTA: CUESTIONES DE
OPORTUNIDAD

Aintzat hartu dira txosten teknikoak egin ondoren ireki diren aukera guztiak, eta horrenbestez, komenigarritasun eta egokitasun printzipioei jarraituz, aurkeztutako alegazioak honela ebaztea hautatuta da:

.- 2595/2019 alegazioak espediente honekin zerikusirik ez duela iriztea, eta Gizarte Kohesioko Arloari igorri behar zaiola, jasorik gera dadin.

.- 3200/2019 alegazioa baiestea, onura publikoko arrazoiengatik. Izan ere, beraren bidez espazio libreen toki sistemarako eremu bat sartuko da 56. zenbakiko "Katea" banaketa-arean, aldaketa puntualaren ondoriozko hirigintza-planeamendua egikaritzen denean doan laga dadin. Gehikuntza horrek antolamendu-proposamena birformulatzerara behartzen du, eta horrek hainbat aukera arakatzeko bidea emango luke.

BOSGARRENA: PROZEDURA
KONTUAK

Alegazioak baiestek berekin dakar jarduketetan atzera egitea eta berriro formulatzea antolamendu-proposamena, Urduñako Mendatea kaleko 6-8an dagoen lurzatia 56. zenbakiko "Katea" banaketa-arearen berriaren partetzat jo dadin. Hori guztia gorabehera, edukia aldatu behar ez zaien izapideak mantendu ahal izango dira.

Se tienen en consideración las distintas opciones que se abren tras el informe técnico para, atendiendo a criterios de conveniencia y oportunidad, optar por la resolución de las alegaciones formuladas en el sentido siguiente:

.- Considerar la nº 2595/2019 ajena a este expediente, debiendo ser remitida la alegación al Área de Cohesión Social para su debida constancia.

.- Estimar la nº 3200/2019 por razones de interés público, en la medida en que supone la incorporación de una superficie destinada a sistema local de espacios libres al ámbito del Área de Reparto nº 56-"Katea" para su cesión gratuita en la ejecución del planeamiento urbanístico que resulte de la Modificación Puntual. Dicha incorporación obliga a reformular la propuesta de ordenación, lo que permitiría explorar diferentes posibilidades.

QUINTA: CUESTIONES DE
PROCEDIMIENTO

La estimación de las alegaciones conlleva la retroacción de las actuaciones, con necesidad de reformular la propuesta de ordenación para que sea considerada la parcela sita en los nº 6-8 de la calle Puerto Orduña parte del ámbito de la nueva Área de Reparto nº 56-Katea. Todo ello sin perjuicio de la conservación de los trámites cuyo contenido vaya a mantenerse sin variación.

III.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena; apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa; EAEko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, hirigintzako estandarrei buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa; 9/2014 Legea, telekomunikazioei buruzkoa; uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uraren Legearen testu bategina onartzen duena; otsailaren 24ko 584/1972 Dekretua, zortasun aeronautikoei buruzkoa; otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta gaiari aplikatu behar zaion gainerako legeria.

Lurraldeko Informazio Batzordeak aldeko sei botorekin (PNV-EAJ eta PSE-EE) eta kontrako bost botorekin (PP, ELKARREKIN PODEMOS eta EH-BILDU) hala eskaturik, proposamen hau aurkezten zaio Udalari:

ERABAKI-PROPOSAMENA.-

Udalaren Osoko Bilkurak 2016-06-29an hartutako 147. erabakiari egin zaizkion alegazioak aurreko

III.- LEGISLACIÓN APLICABLE: Ley 7/1985, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2016, de 7 de Abril, de Instituciones Locales de Euskadi; Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco; Decreto núm. 123/2012, de 3 julio, de «estándares urbanísticos»; Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental; Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas; Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco; Ley 9/2014 de Telecomunicaciones; Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas; Decreto 584/1972, de 24 de febrero, de Servidumbres Aeronáuticas; Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; Plan General de Ordenación Urbana de Getxo y demás legislación de aplicación a la materia.

A instancia de la Comisión Informativa de Territorio, con seis votos favorables (PNV-EAJ y PSE-EE) y cinco en contra (PP, ELKARREKIN PODEMOS y EH-BILDU), se eleva a consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,

PROPUESTA DE ACUERDO.-

Resolver, en los términos expresados en las "consideraciones" precedentes, las alegaciones formuladas frente al

"kotsiderazioetan" adierazten den moduan ebaztea. Erabaki horren bidez hasierako onespena eman zitzaion Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual bati, zeina M^a JESUS HERMOSO MENDEZ ANDREAK ETA BESTE BATZUEK aurkeztu baitzuten, Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19 zenbakietarako.

Hala, bada, Carlos Hernando Pérez jaunak eta Ricardo González Gómez jaunak aurkeztu duten alegazioari dagokionez, berriaz adierazten da izapidetzen ari den aldaketa puntualak funtsean ez duela eragozten eurek eskatu dutena egitea, baina erabaki hori ez dela espediente honetan hartu behar eta alegazioa Gizarte Kohesioko Arloari igorri behar zaiola, jasorik gera dadin.

Magra de Orue senideek eta beste batzuek aurkeztutako alegazioa baietsi egiten da, eta, ondorioz, berriro formulatu behar da antolamendu-proposamena, Urduñako Mendatea kaleko 6-8ko lurzattia 56. zenbakiko "Katea" banaketa-area berriaren partetzat jo dadin. Ondorioz, jarduketetan atzera egitea erabakitzen da, hala, antolamendu-proposamen berria formulatu ostean, hasierako onespenerako aurkez dadin.

3.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

EH Bildu Taldearen 37164/2019 idazkia, beraren bidez, Gobelaurre kaleko parterrien utzikeriari buruz galdetu dute.

acuerdo nº 147, adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 29.06.2016, por el que se aprueba, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo propuesta por Dña. M^a JESUS HERMOSO MENDEZ Y OTROS, para los nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso.

De este modo, y respecto a la alegación presentada por D. Carlos Hernando Pérez y D. Ricardo González Gómez, se deja constancia expresa de que, sin que la Modificación Puntual que se tramita impida, en principio, su realización, no es decisión que corresponda tomar en este expediente, debiendo ser remitida la alegación al Área de Cohesión Social para su debida constancia.

Respecto a la presentada por los Hermanos Magra de Orue y otros, se estima la misma, lo que supone la necesidad de reformular la propuesta de ordenación para que sea considerada la parcela sita en los nº 6-8 de la calle Puerto Orduña parte del ámbito de la nueva Área de Reparto nº 56-Katea. En consecuencia, se acuerda la retroacción de las actuaciones para que, formulada la nueva propuesta de ordenación, sea sometida a aprobación inicial.

3.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Escrito nº 37164/2019 de EH Bildu, preguntando por el abandono de parterres en la calle Gobelaurre.

Bizilagunek aurkeztu duten idazkia aipatu du Janire Ociok. Idazki horri behar bezala erantzungo zaio. Hori bai, Pedro Sacristánek aurreratu du hainbat inausketa mota probatzen ari direla zuhaitzak beste era batera taxutu ahal izateko, parterreak liberatzeko, sustraitzen diren lurra sakontzeko etab. Garbiketa egunero egiten da.

EH Bildu Taldearen 37165/2019 idazkia, beraren bidez, Gobelaurre kalearen zabalerari buruz galdetu dute.

Pedro Sacristánek esan du hura nola berri aztertzen ari dela.

EH Bildu Taldearen 37168/2019 idazkia, beraren bidez, Gobelaurre kaleko 13. zenbakiko daqoen zebrabideari buruz galdetu dute.

Jada esandako guztiak aipatu ditu Pedro Sacristánek: inausketa mota berrien saiakuntzak eta espaloi-zabaleraren azterketa. Gainera, argiztapenean esku hartzeko aukera ere aipatu du.

Ignacio Roblesek adierazi du beraren iritziz gehiegizko abiaduraren arazoa dagoela, zirkulazioaren abiadura murrizteko sistemarik ez dagoela sumatzen den zona batean.

EH Bildu Taldearen 37170/2019 idazkia, beraren bidez, Alangoko aparkalekuari buruz galdetu dute.

Alvaro Gonzálezek atzerapenen arrazoiak azaltzeko argudiatu ziren arazo teknikoak aipatu ditu; zozketak hauteskunde-egunetan egin badira, ez da nahita izan.

Janire Ocio se refiere al escrito presentado por los vecinos, que será debidamente contestado. Sí adelanta Pedro Sacristán que ensayan disitntas opciones de poda que van a permitir configurar el arbolado de otra manera, liberar parterres, profundizar en el espacio de tierra en los que enraizan, etc... La limpieza se acomete a diario.

Escrito nº 37165/2019 de EH Bildu, preguntando por la anchura de la acera de la calle Gobelaurre.

Pedro Sacristán señala que se estudia su renovación.

Escrito nº 37168/2019 de EH Bildu, preguntando por el paso de cebra en Gobelaurre, 13.

Pedro Sacristán se refiere a todo lo ya apuntado: los ensayos con nuevas podas y el estudio del ancho de la acera. Además apunta la posibilidad de intervenir en la iluminación.

Ignacio Robles quiere apuntar que, a su juicio, se produce un problema de exceso de velocidad, en una zona que se aprecia como de tránsito en la que no hay sistema de reducción de velocidad.

Escrito nº 37170/2019 de EH Bildu, preguntando por el parking de Alango.

Alvaro González se refiere a las cuestiones técnicas que fueron expuestas para explicar los retrasos, sin que se haya pretendido la coincidencia de las fechas de los

sorteos con las convocatorias electorales.

EH Bildu Taldearen 37207/2019 idazkia, beraren bidez, Zarrenebarri kalean egoera txarrean dagoen eraikin bati buruz galdetu dute.

Escrito nº 37207/2019 de EH Bildu, preguntando por un edificio en mal estado en la calle Zarrenebarri.

Neguriko geltokiko eraikina dela eta, Iñigo Urkitzak esan du ETSri errekerimenduak igorri zaizkiola eta erakunde hori behar diren obrak egiteko proiektua prestatzen ari dela. Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuarekin koordinaturik.

En relación con el edificio de la Estación de Neguri, Iñigo Urkitza se refiere a los requerimientos dirigidos a ETS, quien trabaja en la redacción del oportuno proyecto para la ejecución de las obras necesarias. Todo ello coordinado con el Servicio de Patrimonio Cultural dependiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

Popular Udal Taldearen 37259/2019 idazkia; beraren bidez, Sarrikobasoko etxebizitza berriak eraikitzeen noiz hasiko diren galdetu dute.

Escrito nº 37259/2019 del Grupo Municipal Popular preguntando por el inicio de la construcción de viviendas en Sarrikobaso.

Eduardo Andradek kendu egin du galdera hori, jada erantzunda dagoela iritzita.

Eduardo Andrade retira esta pregunta, por entender que ya está contestada.

Elkarrekin-Podemos Taldearen 37462/2019 idazkia; beraren bidez, Aquariumaz galdetu dute:

Escrito nº 37462/2019 de Elkarrekin-Podemos preguntando por el Aquarium:

Joseba Arregik izan diren gorabeheren eta obrak berri eman du.

Joseba Arregi da cuenta de las incidencias y obras habidas.

Bilera amaitu aurretik, Eduardo Andradek kreditu gehigarri bati buruz galdetu du. Alvaro Gonzálezek azaldu du Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat dela, eta Fadurako lurzorua kalitatea baloratzeko lanengatik jada ordaindutako faktura bati dagokiola.

Antes de finalizar la reunión, Eduardo Andrade pregunta por un crédito adicional. Alvaro González explica que es una subvención del Gobierno Vasco, en relación con una factura ya pagada por trabajos de valoración de la calidad del suelo en Fadura.

10:22an, presidentek bilkura amaitutzat eman du.

Siendo las 10:22 horas, la Presidenta da por finalizada la sesión.